

## **FESTA DEZAGUN GAURDANIK GEROA!**

### **Herri jai feministak sortuz**

---

Festak eduki sinbolikoa duten jendarte eta kultur adierazpenak dira: errealtatearen adierazle kondentsatuak. Jaiek norbanakoa kolektibora hurbiltzen dute, prozesu honetan jokoan sartzen diren sentazio eta emozio anitzen bidez. Gure ustez festak bizitzaren erdigunean daude, baloreen munduarekin erabateko lotura dutelako; herriaren nortasuna, jendarte egitura eta hortaz, bertan ematen diren zapalkuntza eta diskriminazioak ere adierazten dituzte. Horrela, jaiek eta erritoei jendarte ordena irauarazten dute: egungo hierarkia anitzak, hegemonikoak diren gizon eta emakume irudiak indartzen dituzte. Tailer honetan gure herriko jaietan elementu diskriminatzaileak identifikatu eta horiei aurre egiteko bitartekoak eskainiko ditugu.

### **HELBURUAK**

- Jaietan emakumeen parte-hartzea sustatzea. Bai antolaketa baita egitarauan ere. Tokian tokiko errealtatea aztertuz jai feminista, aske eta osasuntsuen ereduak zehaztu eta hori lortze bidean neurriak zehaztu eta bitartekoak sortzea. Herri askotan sortu diren herri jai feministen adibideak topatzea eta hauek jendarteratzea. Baliagarri zaizkigun erreferenteak, jarduerak, prozesuak bildu eta gure herri edo eta auzoetako jaien ereduaren inguruko hausnarketa bultzatzea. Bide honetatik emakume sortzaileak plazetan egon daitezzen sustatzea.
- Herri jai feministak sustatzea eta jaietan gerta daitezkeen indarkeria sexista kasuak ekiditea eta bereziki, autodefentsa feministaren beharrezkotasunaz jabetzea. Gainera, indarkeria sexista kasuak erantzuteko herri ezberdinetan jai batzordeen nahiz talde feministen aldetik eman diren erantzunak eta jarduerak ikusaraztea.

### **METODOLOGIA**

Saioen oinarria parte hartzea bultzatuko duten lan dinamikak osatuko dute. Dokumentala ikusi eta gero, herritarren iritzi eta hausnarketak bultzatuko dituzten teknikez osatuko dira saioak.

Hala ere, guztien iritziak jasotzeaz gain adostasun eta proposamen zehatzera iristea helburua izanik, horretara bideratutako teknikak lehenetsiko dira.

### **BEHAR TEKNIKOAK**

(Aldakorrak izan daitezke, baldintzen arabera)

- Gela goxo bat.
- Borobilean esertzeko aukera ematen duen gela.
- Proiektorea eta pantaila.

## ESKAINITZA

*FESTA DEZAGUN GAURDANIK GEROA* dokumentalaren aurkezpena eta solasaldia. Dokumentalaren aurkezpenetik abiatuta, herriko eragile zein norbanakoekin gure herriko jaien inguruko hausnarketa txiki bat abiatzea.

*FESTA DEZAGUN GAURDANIK GEROA* dokumentalaren aurkezpena eta hausnarketa tailerra (2-4 ordu) Dokumentalaren aurkezpenetik abiatuta, herriko eragile zein jaietan parte hartzen duten edo nahi duten herritarrekin herriko jaien inguruko analisi bat egitea. Jaiek duten esangura kolektibotik abiatuta, jaietan ditugun elementu diskriminatzaileak identifikatu eta horiei buelta emateko proposamenak lantzea. Bide batez, indarkeria sexista gisako errealitateari aurre egiteko behar diren bitartekoak identifikatzea.

### **Dokumentala:**

Bilgune Feministak eta Emaginek elkarlanean eginiko dokumentala da honakoa, herri desberdinetako talde nahiz norbanakoen bizipenetatik abiatuta egin dena. Euskal Herriko jai ereduak erakusleho txiki bat da, emakumeen parte hartzearen eta jai ereduaren inguruko gogoeta feministetatik abiatzen dena. Hala nola dokumental honetan ikusgai izango dira, jai batzorde anitzetan indarkeria sexistari erantzuteko sortu izan diren protokoloak, emakumeok plazara proiektua, indarkeria sexistarik gabeko txokoak, kontzientziaziorako eta prebentziorako mahaiak, talde feminista eta emakume elkarteek jaietan izaten duten presentzia eta ausentziaren berri ematea, Irun eta Hondarribiko alardeetan edota Baztango mutil dantzen afera gatazkatsua, besteak beste.